

Bergarako garapen ekonomikoa aztertzean ezinbestekoa da Aro modernora jo eta garai horretan dolare-baserriak, artaziak eta ganibetak aipatzea.

Dolare-baserriak unitate ekonomiko autarkiko gisa sortu ziren, eta honek etxebizitza eredu berria ekarri zuen gainera. Produkzio-elementuak indarra hartu zuen eta honekin batera hezkunde demografikoa eman zen gariaren eta sagarraren laborantza zabaltzearekin batera. Bergaran gutxienez hamar sagar-mota landatu ziren, jateko zein sagardoa egiteko bideratuta. Irabazi handiak eman zituen negozio bihurtu zen sagardoaren zein sagarren salmenta.

Garai honetan, ganibeten eta arma zurien lagintzak ere garrantzi handia hartu zuen Bergaran. Herriko historiaren garairik onena markatu zuen ekonomia honek. Oñatiko eta Bergarako herriak nabarmendu ziren artaziak eta ganibetak egiteko jardueran. Produktu horiek penintsula osora esportatzen ziren mandozainen bidez eta hauek Ameriketara bideratu Debako portutik. Zorroak, kirtanak edo ganibeten beste osagai batzuk ere egiten ziren industriak ere hedatu ziren herrian.

XIX. mende erdialdean, Industrializazioa eman zen eta industria honen ekoizpena asko aldatu zen, izan ere, baliabide mekaniko berriekin, artisaulanak kaltetuak izan ziren, berdinak ziren piezaz osatutako sorta handiak egiten hasi zirelako. Honek atzerapen teknologikoa eta atzerriko produktuekiko lehiakortasun eza ekarri zuen, eta industria hau krisialdi sakonean sartu zen.

Gipuzkoako industrializazioak, Bergaran ehungintza eta siderometalurgia indartzea ekarri zuen. Honekin lotuta, ehungintza modernoa iritsi zen herrira “La Algodonera San Antonio” industriari esker. 1846ko urtarrilean sortu zen eta 300 langileko platila bat izatera iritsi zen.

Gipuzkoako industrializazioarekin batera, Bergaran ehungintzak eta siderometalurgiak indarra hartu zuen. Nazioartean ospe handia hartu zuen enpresa honek, erresistentzia eta iraupen handiko kotoi-ehuna izateaz gain, bi aldeetatik estanpatutako oihalak lantzen espezializatu zirelako.

Material horrekin herritarrentzat laneko arropak egiten ziren gehien bat, eta oihal hauek “Bergara urdinez” tindatzen zituzten. Gainera bertako langileen erdiak baino gehiago emakume oso gazteak ziren, eta fabriketan lan egiten zuten emakume gehien zituzten herrietako bat izan zen Bergara lantegi honi esker.

1860ko hamarkadan, metalurgia-sektoreko industrializazioaren lehen zantzuak azaldu ziren herrian. Honek industriari ate berriak ireki zizkion eta produkzio-teknika berritzaileak txertatu ziren.

1869. urtean Arrasaten “Vergarajaúregui, Rezusta y Cía”, gerora “Unión Cerrajera” izan zena sortu zen eta urte batzuk geroago, Bergarako Labe Garaiak sortu ziren Bergaran, “Unión Cerrajeraren” filiala izango zena. Ibarra auzoan kokatu zen eta sektoreko lehen enpresa modernoa izan zen.

XIX. mende amaieran, Bergarako hainbat lantegi tamaina ertain zein txikikoak fabrika bihurtu ziren, eta asko izan ziren ehungintzako makinak konpondu eta

tresnak eta piezak egiteaz arduratu zirenak. Garrantzitsuneak Eguren eta Ramón González de Audicana izan ziren.

Garai honen bukaera ez zen oso ona izan La Algodonerarentzat, izan ere, kapitalizazio arazoak izan zituen eta. Baina mahoi urdinezko laneko arroparen eskario nabarmen igo zen eta epe motzean egoerari buelta emen zion, herriko ehungintza-sektoreari bultzada emanaz. Beste fabrika batzuk ere sortu ziren ehungintza produkzioan, “Gregorio Fernández y Sobrino” eta “Hijos de Arturo Narbaiza” besteak beste.

Bergarako industrializazio prozesuan nabarmendu beharreko jarduera duten beste sektore batzuk ondorengoak dira: Iringile Mekanikoa, Teileria, Harrobiak, Zerrategiak eta Energía Elektriakoaren produkzioa. 1915erako 17 lantegi zeuden Bergaran eta horietan, 1.030 langile.

Gaur egun ere metalurgia da Bergarako industria jarduera nagusia, eta udalerrian lan egiten duten herritar gehienak bertan ari dira. Debagoieneko beste udalerrri batzuekin alderatuz, dibertsifikazio garrantzitsua dago gainera Bergaran. Etxeko elektra tresneria, ehungintza eta siderurgiaren arloan diharduen industria aipatu behar da hemen bereziki.